

# **EUSKADIKO HONDAKIN INDUSTRIAL ARRISKUTSUE 2016KO INBENTARIO. LABURPENA**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

**Edizioa:** 2018ko apirila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila  
[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)


**Argitaraldia:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia/San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

**Edukia:** dokumentu hau L&A Asociados enpresak egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailerako



## HONDAKIN ARRISKUTSUEN SORRERA

2016an zehar, **321.628 t** hondakin arriskutsu sortu dira EAEn guztira. Horietatik, 226.152 t urteko jarduera ekonomikoari lotuta daude (% 70,31), 83.686 t linea amaierako tratamenduetatik datoz (% 26,02), eta 11.791 t *hondakin historikoak* deiturikoen barruan sartzen dira (lur kutsatuak, amianto-hondakinak eta PCBdun olioak eta tresnak: % 3,67).



Aluminioaren bigarren mailako ekoizpeneko gatz-zepak (EHZ 100308, 69.461 t) gehien sortutako hondakin-korrontea dira, eta ondoren datoz altzairugintzako hautsak (EHZ100207, 53.145 t) eta desugerketa-azidoak (EHZ 110105, 21.699 t). Metalak ekoizteko eta eraldatzeko industria da, beraz, ekarpen handiena egiten duen sektorea, 205.725 t hondakin arriskutsu sortu baititu (guztira sortzen denaren % 63,96).

Bizkaian, inbentariatutako hondakin arriskutsuen % 63,86 sortu da; Gipuzkoan, % 19,98, eta Araban, % 16,16. Hiru kasuetan, metalak ekoizteko eta eraldatzeko industriako hondakinak dira korronte nagusiak.

## HONDAKIN ARRISKUTSUAK KUDEATZEA

### Aplikaturako tratamenduak

Sortutako hondakin guztien % 67,06k jaso du balorizazio-tratamendua 2016an (% 66,10, balorizazio materiala; % 0,96 balorizazio energetikoa). Kudeatzeko beste aukerak ezabaketa (% 32,18) eta errausketa (% 0,76) izan dira.

Lurralde-ikuspegi batetik, Bizkaiak (% 72,00) gaintitu egiten du EAeko balorizazioaren batezbestekoa (% 67,06); balio baxuagoak lortu dituzte Gipuzkoak (% 60,72) eta Arabak (% 55,36).

Hondakin historikoen eragina alde batera utziz, EAE osoko balorizazio-tasak gora egin du: % 69,59.

### Tratamendu-lekua

2016an sortutako hondakin arriskutsuen % 50,71 EAEn kokatuta dauden tratamendu-instalazioetan kudeatu dituzte.



2.914 t autokudeatu dira: batez ere, taladrinak (1.630 t) eta ur eta sustantzia koipetsuen bereizleen lohiak (1.206 t).

Hondakin historikoen eragina albo batera utziz gero, EAeko kudeaketa-tasak behera egiten du: % 50,38.




## URTETIK URTERAKO BILAKAERA

2015ari dagokionez, jaitsi egin da sortutako hondakin-kopurua (-6.454 t; % -1,97), batez ere, murriztu egin direlako desugerketa-azidoak (EHZ 110105, -12.457 t) eta altzairugintzako hautsak (EHZ 100207, -11.269 t), sektore siderometalurgikoko instalazio batzuetako ekoizpena gelditzearen edo moteltzearen ondorioz. Hondakin historikoen eragina alde batera utziz gero, areagotu egiten da urtez urteko jaitsiera (-12-488 t, -3,87%).




2016an, % 67,06 balorizatu zen (balorizazio materiala edo energetikoa); 2015ean erregistratutakoa baino apur bat gutxiago, beraz. Egoera horretan eragina du nagusiki balorizagarriak diren korronteen jaitsierak (besteak beste, desugerketa-azidoak eta altzairugintzako hautsak).

Autokudeaketa- eta hurbiltasun-printzipioak betetzeari dagokionez, sortutako hondakin arriskutsuen % 50,71 EAEn kokatutako instalazioetan tratatu dira, eta atzerapausoa da hori, aurreko urteetako balioekin alderatuz gero (% 55,83, 2015ean; % 55,87 2014an, eta % 60,92 2013an).





## KORRONTE NAGUSIAK





2016an, **altzairugintzako hautsen** 53.145 t sortu dira; 2015ean baino % 17,49 gutxiago (-11.269 t); sektore honetako zenbait instalaziotako ekoizpena gelditzearen edo moteltzearen ondorio da hori.

Hondakin honen izaera dela-eta, birziklatze-tasa oso altuak lor daitezke (% 97,89). EAEko tratamendu-ratioa jaitsi egin da aurreko urteetakoarekiko.

2016an, 21.699 t **desugerketa-azido** sortu dira; % 36,47ko jaitiera gertatu da, 2015arekiko.

Apur bat jaitsi dira, bai EAEko kudeaketa-tasa (% 74,52 2015ean; % 73,77 2016an), bai balorizazio-ehunekoa (% 80,92, 2015ean, % 73,36, 2016an).



**Aluminioaren bigarren ekoizpeneko gatz-zepi** dagokienez, 2016an, 69.461 t kudeatu dira; 2015ean baino % 11m73 gehiago (7.293 t). Balorizazio-tratamenduetara bideratu dira guztiak.

EAEko kudeaketa % 8,49koa da.



**Taladrinen** kudeaketak, 2015arekiko, % 17,09ko igoera (+1.687 t) izan du 2016an (11.559 t).

Tratamendu fisiko-kimikoen bidezko ezabaketa da kudeaketa-mota nagusia.

EAEko kudeaketa-indizea (% 60,99) 2015ean erregistratutako baino hobea da (% 53,47).

